



Aho batez onartu dira 2021eko kontuak eta 2022ko egitasmoa

Pasa berri den urteari dagokionez, bertso plazaren egoerari eta Mintzola Fundazioaren azkentzeari jarri zaio arreta. Aurtengo egitasmoan Bertsolari Txapelketa Nagusia nabarmentzen da.

Pasa berri den larunbatean, Izpura (Baxenabarre) gauzatu genuen Euskal Herriko Bertsozale Elkartearen Batzar Nagusia. Faustin Bentaberri Gelan izan zen hitzordua, 11:00etatik aurrera, eta 45 bat bazkide elkartu ginen.

Miren Artetxe Euskal Herriko Bertsozale Elkartearen Lehendakaria Taldeko kideak hasi zuen batzarra pantailaz bestalde, bertaratutakoak agurtuta: 2021eko proiektu eta datu esanguratsuenak errepasatu zituen. Plazako datuei jarri zitzaizkien bereziki arreta ondoren: pandemia ostean berreskuratu diren saioak eta erreperatu ez direnak aztertu, eta bertsolari taldean izan dituen eraginak aztertu ziren. Plazako jarduerarekin lotuta, Lanku Kultur Zerbitzuen urtearen berri ere eman zen.

Ondoren, 2021ean landutako prozesuak aipatu ziren banan-banan: Mintzola Fundazioaren azkentzea eta azken urteotako balorazioa, Hezkuntzako berrikuntza programa, Bertsozale Elkarteko funtzionamendua hobetzeko parte-hartze prozesua, Bertsozale Elkarteko berrantolaketa eta borondatezko lanaren inguruan egingo den gogoeta. Luze jo zuen prozesu guztien azalpenak, eta bilera erdia pasa zen 2021eko likidazioa onartzerako.

Ilusioz onartu zen 2022ko egitasmoa, urte berezia izango baita datorrena; ondo bidean, udazkenean jokatu delako Bertsolari Txapelketa Nagusia. 2022ko egitasmoaren baitan dugun proiektu honen eta gainerako azalpena emanda onartu zen, aho batez, 2022ko aurrekontua.

Bertso Eguna segidan

Batzar Nagusiaz gainera, Bertso Eguna egiteko ere baliatu genuen Izpurako hitzordua. 17:00etan hasi zen saioa: Aimar Karrikak gidatuta, Nerea Ibarzabal, Oihana Iguaran, Unai Agirre eta Sustrai Colina aritu ziren bertsoan, eta gonbidatu bereziak ere izan zituen saioak: Bilaka Kolektiboko kideak aritu ziren dantzan, Mirentxu Lazkano, Paxkar Irigoien eta Xabi Etxeberri musikariek ere hartu zuten parte, eta baita Dom Campistron marrazkilariak ere. Irantzu Idoatek egin zuen bertsoan hasieran eta amaieran.

100 lagun inguru elkartu ziren 2022ko Bertso Eguneko emanaldian.



AMETS
ARZALLUS ANTIA
Lezo, 2022-02-19



Doinua: Gure aurreko guraso zaharrak

Itxura denez pandemia batek
jan du azkenburukoa
ea ba gure kezka zaharri
hartzen diegun trukoa.
Bizimodu bat nahi dugu libre
kanpoko nahiz barrukoa
ospa dezagun KORRIKA kantuz
ai bertsozale urkoa
negu luzeak udaberriai
pasatako lekukoa.

Izpurako Faustin Bentaberri Gelan gauzatu zen Batzar Nagusia. //XDZ

Apirilaren 1ean hasiko da Arabako Bertsolari Txapelketa Amurrion

Ekainaren 11n izango da finala Gasteizen. Sarrerak eskuragai daude bertsosarrerak.eus atarian.

Urtebetez ez ezik, pandemiagatik zenbait hilabetez atzeratu behar izan eta gero – urtearen hasieran zen berez hastekoa –, datorren ostiralean hasiko da Arabako Bertsolari Txapelketa.

Amurrion izango da lehen final zortzirena, eta segidan izango dira Biasteriko, Trebiñuko, Legutioko eta Langraizeko saioak. Horien ondoren hiru final laurden eta bi finalurreko jokatu dira, Dulantzin, Zigoitian, Aramaion, Araian eta Izarran, hurrenez hurren, eta azkenik, ekainaren 11n izango da finala Gasteizen; lehendabizikoz, Europa Biltzar Jauregiko Maria de Maeztu auditorioan egingo da. Saio guztietarako sarrerak eskuragai daude bertsosarrerak.eus atarian.

Laudioko Aiaraldea Ekintzen Faktorian aurkeztu zen txapelketa pasa den martxoaren 19an, eta hainbat parte-hartzaile agertu ziren hitzordura. “Hasi, erori, altxa, makurtu, abiadura bizitu, apurtu, segi, moteldu eta aurrera, etenaldiak etenaldi, aurrera bidean gauza berriak sortu, probatu eta gozatu ditugu”, azaldu zuen aurkezpenean Arabako Bertsozale Elkarteko Egoitz Iradierrek. Izan ere, besteak beste, Arabako Bertsolari Txapelketa egiteko baldintzarik ez egonda, binakako txapelketa sortu zuen Arabako Bertsozale Elkartek 2021ean.

30 bertsolarik hartuko dute parte 2022ko Arabako Bertsolari Txapelketan, 2019ko finaletik sailkatutako 5ek eta beste 25 gehiagok. 18 bertsolari ariko dira final laurdenetan, 12 finalurrekoetan eta azken fase honetako erdiak ariko dira finalean.

Honenbestez, Arabako Bertsolari Txapelketa gauzatuta osatuko da Bertsolari Txapelketa Nagusira bidean lurraldeetan egin ohi den txapelketen zikloa.

Informazioa egunean-egunean jarraitu ahal izango duzu www.bertsozale.eus webgunean eta baita bertsoa.eus atarian ere.



Egutegia

Final zortzirenak
Apirilak 1. Amurrio
Apirilak 2. Biasteri
Apirilak 3. Trebiñu
Apirilak 8. Legutio
Apirilak 9. Langraiz

Finalurrekoak
Maiatzak 28. Araia
Maiatzak 29. Izarra

Finala
Ekainak 11. Gasteiz

Final laurdenak
Maiatzak 7. Dulantzi
Maiatzak 8. Zigoitia
Maiatzak 14. Aramaio



Hainbat parte-hartzaile elkartu zituen txapelketaren aurkezpenak. //XDZ



Txapelketei jarraipena egiteko
www.bertsozale.eus eta www.bertsoa.eus

Bapatean 2021 liburua bidali zaizue eskatu duzuen bazkideoi

Aurten paperean ere atera dugu urteko bertso bilduma. Argitalpena hala jaso nahi duzuen bazkideok eskaera egin zenuten otsailean, eta laster jasoko duzue alea etxean, dagoeneko jaso ez baduzue.



548 bertsoaldi transkribatu jasotzen ditu Bapatean 2021 bildumak.//XDZ

54 saiotako 80 bertsoaldi; guztira, 548 bertso transkribatu jasotzen ditu *Bapatean 2021* bildumak, gai, doinu eta saioei loturiko informazio guztiarekin. Sarean eskuragai dago argitalpena PDF fitxategian, eta bertsoaldiak ere audioan entzungai daude bdb.bertsozale.eus atarian; orain liburu formatuan ere argitaratu dugu *Bapatean 2021*.

Bertsolaritzaz gozatzeko ohiturei buruzko galdetegia beteta, bazkideok *Bapatean 2021* liburuan jasotzeko eskaera egin ahal izan zenuten otsailean. Pasa den astean egin da bidalketa, eta iritsi ez bada, laster izango da postontzian. Gozatu!

Jende askok katean egindako lana

Bapatean osatzeko hautaketan lurraldetasun, genero eta belaunaldiartekotasuna kontuan izan dira, bertsolari bakoitzak egindako bertso kopurua ere bai. "*Bapatean 2021* ematen duen ekuazioa aldagai askotarikoa da; hain zuzen ere, horrek bihurtzen du *Bapatean* bakoitza kalitatezko lagin", azaldu du Karlos Aizpurua Bertsozale Elkarteko Ikerkuntza eragileak www.bertsozale.eus atariko blogean. Azken *Bapatean* hau eta duela 20 urte kaleratutakoa erkatzen dituen artikulua ere idatzia topatuko duzu bertsoa.eus atarian.

Lehen aldiz, Ipar Euskal Herriko ahapaldiak dagokien forman idatzi eta izendatuta dakartza bildumak. Urtero bezala, bertso plazari buruzko datu orokorragoak ere eskaintzen dira.

Maddi Sarasua Laskaraik idatzi du liburuaren hitzaurrea. Bertsolari lapurtarrak bertso ekitaldien zentzuari eta kulturaren funtzioei egin die erreferentzia: "*Egon dira plazak eta saiatu gara bertsolariok umorea pizten, kezkei eta gogoei kantatzen. Baina denen kezkek eta gogoak berdinak ez direnean ez da erraza zer kantatu asmatzen. Eta plazara seguru atera behar den arren, galderak daukagu barruan*".

Jende askok katean egindako lana da *Bapatean*. Xenpelar Dokumentazio Zentroan koordinatzen da bilketa lana, eta hainbat grabatzailek jasotako informazio eta grabazioak dira azterketaren oinarri. Bertsozale Elkartek herriz herriko biltzaileok egiten duzuen lana nabarmendu nahi du.

Aleren bat gehiago eskuratu nahi izanez gero, Elkar dendan jarriko da eskuragai.

Proiektua gauzatzeko Gipuzkoako Foru Aldundiaren Oreka eta Eusko Jaurlaritzaren ondare immaterialaren azterketarako dirulaguntza jaso dira.

Koplak

Maiatzean kobratuko da bazkietza kuota

Bertsozale Elkarteko bazkideok maiatzean ordainduko duzue urteko bazkietza kuota; aurreko urteetako kopurua mantendu eta 60 eurokoa izango da aurtengoa ere. Kontu korrontetik kobratuko zaizue kopurua laster.

Poto-Finixa



Korrikarekin bat

Euskal Herriko Bertsozale Elkarateak ere tipi-tapa egingo du 22. Korrikan: apirilaren 10ean Donostian egingo diren azken kilometroetan lekukoa hartuko dugu. Zurriola pasealekuan izango da hori, 8:30ak aldera, eta bazkideoi bat egiteko deia egin nahi dizuegu. Hainbat herritan bertso-eskolek eta Korrika batzordeek antolatutako bertso saioetara eta emanaldietara parte hartzera ere animatzen zaituztegu.

